

Lehen batel festa etzi

Laskorain, Hirukide eta Orixeko ikasleen artean ▶ 2



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Osteguna ▶ 2007-06-07 ▶ V. urtea ▶ 1.180. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Dina Bilbao Bidaia Beka, bidaiari trebeen bila

BEKA ▶ Bilbaoren desagertuaren 10. urteurrenean antolatu dute losu Iztuetak eta hainbat lagunek **OINARRIAK** ▶ 16 eta 18 urteko gazteri zuzenduta, 7-10 eguneko bidaia egiteko aukera emango du ▶ 3



Bizirik zegoen zekor bat erasotu dute hiru putrek

ABALTZISKETA ▶ Hiru putrek bi eguneko zekorra erasotu zuten herenegun Abaltzisketan, giharrak eta heste batzuk kaltetu zizkiotelarik. Hain zuzen ere, Larraizko larretan zegoen zekorra, eta jabearen arabera, lozorroan zegoela-edo erasotu zioten herenegun eguerdian. Inguruan zeuden sasi-garbitzaile batzuk behi-

kumea hiru putrek arrastaka zeramatela ikusi zuten, zekorra zutik zegoela, eta haien makinek hiru saiak izutzen ahalegindu ziren. «10 minutu gehiago beharko zituzten animalia hiltzeko», adierazi zuten garbitzaileek. Albaitariarenera eraman zuten Arkaitz Garmendia jabeak, baina seguruenik hil egingo da. N. URBIZU ▶ 5

IBARRA ▶

Pakistani buruzko jardunaldiak oro har ondo

Hitzaldian eta Oargiko afarian jende ugari bildu zen ▶ 6

PAULO IZTUETA ▶ IRAKASLEA



HITZA

«Lizardik euskalgintzan eginiko lana ezezaguna da»

Lourdes Otaegirekin 'Lizardi.Gutunak' aurkeztuko du gaur ▶ 2

LEITZA ▶

'Apaizac obeto' emanaldia gaur

Peritzan, Jon Maiaren eskutik ▶ 7

PAULO IZTUETA ▶ IRAKASLEA

«Lizardik politikan edo euskalgintzan eginiko lan handia ez da hain ezaguna»

'Lizardi. Gutunak (1928-1932)' aurkeztuko du gaur, Lourdes Otaegirekin batera

IÑIGO TERRADILLOS

Jose Mari Agirre *Lizardi*-ri buruzko liburua prestatu dute Lourdes Otaegi euskal filologoak eta Paulo Iztueta unibertsitateko irakasleak. Liburuaren izenburua *Lizardi. Gutunak (1928-1932)* da, eta urte horietan Lizardik bidali eta jasotako gutunen ingurukoak biltzen dituzte. Hain zuzen ere, gaur egingo dute aurkezpena udale-

txeko batzar aretoan, lanaren bi egileek, 20:00etan. Paulo Iztuetak (Berastegi, 1941) kontatu dizkigu liburuaren nondik norakoak.

Orixeren liburuaren ondoren, Lizardirena.

Lizardiren gutunak oso barreiatuak egon dira orain arte Lourdes Otaegik, Lizardiri buruzko tesia egiten ari zela argitaratu zituen batzuk, eta ni Orixe aztertzen ari nintzela topatu

nituen Lizardiren gutun batzuk. Hala, elkarrekin egitea erabaki genuen. Duela gutxi Gutun Sorta izeneko sail berezia ireki genuen, eta geroz eta garrantzi handiagoa du sailak, biografiek gero eta pisu handiagoa baitute.

Zer islatzen dute gutunek.

176 gutun dira guztira. Lizardik garaiko pertsonaia politikoa ezagunekin izandako harremanak erakusten dizkigu la-

nak, baita Orixerekin izandako kultur kezken ingurukoak ere (literatura, euskarazko egunkaria sortzea, berpizkundea...). Benetako asmoez ari zaizkigu, sakoneko eragileak zeintzuk ziren... Hizkuntza aldetik aberatsak direla aipatu behar da. Nahiz eta Lizardiren alderdi literarioa ezaguna izan, ez da hain ezaguna bere alderdi politikoa, edota euskalgintzan eginiko lan handia.



I. OTEGI/A.P.

Hurrengo lana zein izango da?

Zaitegiren ingurukoak izango da hurrengoa. ◀

GENERO INDARKERIA ▶



Elkarretaratzea egin dute genero indarkeria salatzeko

Erredakzioa ▶ Herenegun Tolosako Trianguloan Emakumeen Mundu Martxarako plataformak elkarretaratzea egin zuen aste-buru honetan genero indarkeriaz hil diren bi emakumeen heriotzak, bata Gasteizen eta bestea Baionan, salatzeko. Urtea hasi zenetik hirugarren eldiz elkartu direla emakumeenganako indarkeria salatzeko azaldu zuten. Heriotza hauek «sexuen arteko bereizketan oinarritzen den sistema patriarkalaren ondorio», di-
rela eta «euskal emakumeok bizi dugun diskriminazioa eta jasaten ditugun erasoak ez direla gertakari isolatuak, eta sexuen arteko parekidetasuna bultzatu behar dela» adierazi zuten. HITZA

KIROLAK ▶

Tolosako lehenengo batel topaketa, etzi

Orixe, Hirukide eta Laskorain Ikastolako ikasleek hartuko dute parte, 11:00etatik 13:00etara izango den ekimenean

ERREDAKZIOA

Urte honetan zehar Tolosako hiru ikastetxeek (Orixe BHI, Hirukide eta Laskorain Ikastola) etzi burutuko duten kirol programa prestatzen egon dira. Ekimenari lehenengo batel topaketa izena jarri diote, eta goizean izango da, 11:00ak eta 13:00a bitartean, Tolosako Orixa ibaiaren batel gunean, Zerkausi parean.

«Batel festa ospatzeko asmoa dugu, ez bakarrik aurten baita hurrengo urteetan ere, horrela arraunak Tolosan eta Tolosaldean izan dezan denok desio dugun eta batel tradizioa duen herri honek eskaturiko bultzada, eskola mailan». Hori-
xe da antolatzaileen hitzetan ekitaldiaren helburua. Kirol topaketara Ibarra, Villabona eta Alegiako ikastetxeak deitu dituzte, «DBHko arraunlari gazteen erakustaldia. DBH maila.
12:45. Tolosako Bandera eskuratzeko finala sailkatutako lau batelen artean. Babxilergo maila.
13:00. Bandera eta beste dominen emanaldia.
▶ Ikasleek Zerkausi jarriko diren ergometroak erabili ahalko dituzte, goizean zehar.



Batel tradizioari bultzada ematea du helburu ekimenak. N. LIZARTZA

LEHENENGO BATEL TOPAKETA ▶

ETZI
11:00. Euskal herriko 10 ikastetxeren arteko batel mistoen sailkatzea. Babxilergo maila.
12:00. Tolosaldeko ikastetxeetako arraunlari gazteen erakustaldia. DBH maila.

ra, eta arraunlarien artean badaude Euskadi eta Espainiako txapeldunak. Kirol azalpenak emango dituena Iñigo Asensio tolosarra izango da.

Lehiaketa hauetaz gain, eta Ikastolen Elkartek duen Ikasarraren proiektuari esker, DBHko Tolosa eta Tolosaldeko lehen mailako ikasleek arraunnean hasteko aukera izango dute bi *A1a* ikaste-ontzi berezitan, kirol lehiaketa jokatzeko den bitartean.

Ekimena aurrera eramateko, Tolosako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia —topaketa eskola lehiaketatzat homologatu du—, TAK —batelak eta instalazioak utzi dizkiete—, Insaluz Ura eta Baikara Gipuzkoako Ikasleen Guraso Elkartearen laguntza izan dute. Antolatzaileek laguntzaile guztiak esker-tu nahi dituzte, eta ikasle, guraso eta jende guztiari luzatzen diete gonbidapena «arraun festa honekin goza dezaten».



TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ERIZAINNTZA LAGUNTZAILEA
- FARMAZIA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- DIAGNOSI IRUDIA
- OSASUN DOKUMENTAZIOA
- GIZARTE INTEGRAZIOA
- HAUR HEZKUNTZA

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA
Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

TOLOSA ▶

Bakearen aldeko Joan XXIII. saria Fernandezi

Elkarriko fundatzaile denaren 25 urteko ibilbidea goraiatu dute honekin



Jonan Fernandez. N. GARCIA

ERREDAKZIOA

Nazioarteko Bakearen Unibertsitateak eta Victor Seix institutuak Bakearen aldeko Joan XXIII. omenezko saria eman diote Jonan Fernandez tolosarrari. Saria Fernandez-
en ibilbidea saritu nahi du. Elkarri osatu zuen duela 25 urte, «Euskadin elkarbizitzaren alde egiten duen erakundea, alderdi etiko batetik, indarkeriaren eta torturaren gaitzespenarekin».

Sari hauek 40. urteurrena betetzen dute aurten, eta Sant Cugat-en ospatuko dute. «Gaur egun txarra da bake prozesuari buruz hitz egiteko», azaldu zuen unibertsitateko zuzendari Arcadi Oliveresek. Baina hala ere, Fernandez zoriondu zuen, «egindako lanagatik». Saria hilaren 13an emango diote.

AMEZKETA ▶

Joxe Mari Goikoetxearen bidaia San Felizisimora

N. URBIZU

Hilaren 17rako Joxe Mari Goikoetxea amezketarrak bidaia bat antolatu du Bilbora. 08:00etan abiatuko dira. Bertan, San Felizisimon meza entzungo dute, eta gero, bazkaria izango da Deustuko Casa Vasca jatetxean. Arratsaldean, Bilboko alde zaharra bisitatu eta Amezketara bidean Zarautzen ere geldialdia egingo dute. Bertara joateko honako telefono zenbakira deitu behar da: 630 855500.

TOLOSA ▶ AISIA

Gazteengan bidaia zaletasuna zabaltzeko beka abiarazi dute

Dina Bilbaoren desagerpenaren 10. urteurrena dela eta, bere lagunek antolatu dute gazteentzako beka hau



Bidaiak zapi-hamar eguneko iraupena izango du eta gai nagusi edo hari bat izan beharko du. JOSEBA ARANBURU

ERREDAKZIOA

Hamar urte beteko dira aurki Dina Bilbao Berruetabeña eta Iñigo Ross Karibeko uretan desageratu zirela. Urteurren hori dela eta, ekimen berri bat jarri dute martxan Dina Bilbaoren hainbat eta hainbat lagunek: Dina Bilbao Bidaia Beka. Josu Iztueta, Aizpea Goenaga, Antxon Arza eta Txixi Orbegozok, besteak beste, Dinak bere bizitzan zehar «hain bereak» zituen baloreak bultzatu nahi dituzte beka honen bitartez: bidaiatzea, kirolzaletasuna, eskual zaletasuna, irudimena, beste kultura eta bizimodu batzuk jakinmina, bizikidetzarako gaitasuna,...

Beka honen bitartez, bidaia bat egiteko aukera emango diete 16 eta 18 urte bitarteko 5-7 gazteri.

Dina 1960ko azken egunean jaio zen Ondarroan, medikuntza ikasketak hasi eta psikologiakoak aukeratu zituen ondoren. Hamabost urtez bizi izan zen Tolosan. Euskarazko klaseak ematen, eski monitorea eta piragua irakasle gisa ateratu zuen bizimodu. Bere kirol ibilbideagatik egin zen ezaguna Euskal Herrian, baina berandu ekin zien lehiaketei, hogeitau urteak pasata, 80ko hamarkadan gauzak bestelakoak baitziren. Emakumeak ia ez zuen lekuri kirolean, ezta bizitza publikoan

orohar. Horregatik aitzindari izan zen Dina, hainbat emakume kirolari gazterentzat erreferentzia. Iraupen eskian eta txirindularitzan eman zituen lehenengo urteak, eta ondoren triatlolan aritu zen. Ehun triatloi baino gehiago egin zituen, beste 40 bat neguko triatloi eta hirurogei duatloi. Kirola aitzakiaz hartuta munduko hainbat eskualde ezagutu zituen: Laponia, Groenlandia eta Alaska eskiz, Ipar Amerika eta Eskandinabia bizikletaz, Nilo ibaia piraguaz, Andaman iriak arraunean... 1995ean Karibeko Antigua uhartera joan zen bizitzera. Eta 1997ko Sanjoan bezperan hango uretan desageratu zen Iñigo Rossekin batera.

Bekaren oinarriak

Gutxienez bost eta gehienez zazpi kideko taldeek eskatu ahal izango dute beka, 16 eta 18 urte bitarteko gazteek. Kide hauek, zazpi eta hamar egun bitarteko bidaia proposamen bat aurkeztu beharko dute. Bidaia horrek gai nagusi edo hari bat izan beharko du, bidaiari zentzua emango diona, eta horren ezagutzan sakontzeko balikoko du. Kontuan hartuko dute ere, asmo berritzailea izatea, taldeko kideek bidaian egingo dituzten ikerketa, bisitak, elkarrizketak, txangoak eta oro har lan banaketa zehaz-

tea, bidaiak ondorengo emaitza bat lantzeko aukera emateko.

Interesatuak gehienez hamar orrialdetan azaldu beharko dute beraien asmoa, eta baita parte-hartzaileen oinarriko datuak ere. Euskaraz egon beharko du idatzita egitasmoa, batuaz nahiz edozein euskalki-tan. Lanak jasotzeko epea hilaren 20a izango da, eta 23an emango da ezagutzera irabazlea. Zortzi lagunek osatutako epaimahai batek aukeratu du proiektu saritua. Proiektu irabazleak denbora eta laguntza izango du bidaia prestatzeko, irailean egingo bailitzateke. Bidaia Euskal Herriatik abiatuko da, eta talde irabazlearekin batera zuzendatzaile bereziki prestatutako furgoneta batean egingo da. Talde irabazlearekin osu Iztueta bidaiaria eta beste pertsona bat joango lirakete. Txangoak 3.000 euroko aurrekontua izango du gehienez.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Tarte honetan zure inguruko albisteen berri emateko aukera duzu. Horregatik, komenigarria da harremanetarako daturen bat uztea.

TOLOSA ▶

Gragikagintzako langileen manifestazioa

Gipuzkoako grafikagintzako enitzaileak dela eta, LAB, ELA eta CCOO sindikatuek deituta mobilizazioekin jarraitzen dute langileek. Gaur, 12:30ean Triangulotik abiatuta manifestazioa egingo dute. Adegik «oraindik mugimendurik ez duela egin» salatzeko.

TOLOSA ▶

Aranburu Liburutegiaren ordutegi aldaketa

Aranburu liburutegiak hila-bete honetan zehar bere ordutegia beste bi orduz zabalduko du, azterketa garaia dela eta. Hau izango da hilaren 30a bitarteko ordutegia: goizez, 09:00etatik 14:00etara eta arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara.

TOLOSA ▶

Zine-forumean, gaur, 'Apaga y vamonos' ikusgai

Zine-forumean, gaur, Manel Mayolren *Apaga y vamonos* filma izango da ikusgai 19:15ean eta 21:45ean. Maputxe-pehuentzuek Espainia-Endesaren zein Txileko gobernuaren aldetik pairatutako jazarpena dela eta, komunitate horren etengabeko gainbeherari buruzkoa da.

ASTEASU ▶

Herri batzarrera deitu du ezker abertzaleak

Gaur 21:00etarako herri batzarrera deitu du ezker abertzaleak. Hau Kultur Etxe zaharrean izango da. Jorratuko dire gaiak egoera politiko eta hauteskunde balorazioa eta aurrera begirako planteamendua izango dira.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Alegian, 120 m²ko pisua eta ganbara salgai, bi bainugela, egongela eta sukalde ederrak, hegoaldera begira dagoen trastelekudun balkoia. Deitu 655 73 02 39ra.

VILLABONA ▶ ERREDAKZIOA

Eraginek bertso afaria antolatu du etzirako

ERREDAKZIOA

Eragin Villabonako presoen aldeko topaguneak bertso afaria antolatu du etzi, larunbata. Bertan Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariak hartuko dute parte eta Amaia Agirre ariko da gai-jarzaile lanetan. Amasa-Villabonako Zentroan izango da ekitaldia, 20:30ean hasita. Sarre-rak Erreka, Iratzar eta Xikerren izango dira salgai.

Eragin topagunea 2006ko abenduan aurkeztu zen publikoan eta bertan herri mailako eragile askok parte hartu zuten, «dispertsio politikaren

aurka Villabonan inoiz egin den argazkirik zabalena» osatuz. Aurkezpen ekitaldian azaldu zutenari jarraituz, «lanean ari gara Villabonako presoen aurka ematen diren bidegabekeriak salatzeke eta lehen pausoa bertso afari hau izango da». Ekitaldi honen bitartez Eraginek «preso eta euren senideekiko elkartasuna areagotu eta bide batez egun indarrean dagoen dispertsio politika basatiaren salaketa gogorra» egin nahi du. Zeregin horretan herriar guztiak bertso afarian parte hartzera animatu nahi dituzte Eragin topagunekoek.

ZIZURKIL ▶ ASTE BERDEA

Karobi, elurzulo eta sela-harrietara irteera

ERREDAKZIOA

Aste Berdearen baitan igandarako *Ezagutu itzazu Zizurkilgo karobiak, elurzuloak eta sela-harriak* izenburupean irteera antolatu dute.

Bi ibilbide antolatu dituzte. Ibilbide luzeak (sei ordu inguru) 08:00etan Pedro M^a Otaño plazan bildu eta leku hauek igaroko dituzte: Sarberreka, Ibiturri, Lizardiko karobia bisitatu, Pagamendi eta Ipidegiko bidegurutzean ibilbide motzekoekin bat egin. Ibilbide motzekoak (hiru ordu inguru) 10:00etan Pedro M^a

Otaño Plazan bildu eta Ipidegiko bidegurutzean joateko autoak antolatuko dituzte. Ipidegiko karobia, Arripilletako sela-harria, Ezkeltzuko elurzuloa eta sela-harria, Orreagako mugarría, Irigorri sailaren ingurua, San Millan sarobe-harria eta Zarateko bi karobiak ikusiko dituzte. Guztiak Motzanan bazkaria egingo dute, bakoitzak berea eramanez. Edaria eta kafea banatu egingo dira.

Irteera dela-eta gaur, *Elurzuloak: zer dira eta nola erabiltzen ziren?* saioa emango dute Iriarte etxean, 20:00etan.

ANOETA ▶ JAIK



Festa giroan murgildu dira anoetarrek

Erredakzioa ▶ Anoeta festaz bustiko da egun hauetan. Atzo, txupinazoa bota zuten eta kukua jaitzi zen, festei hasiera ofiziala emanez. Ekitaldia txalapartariak eta haurren danborradak girotu

zuten. Gaur Korpus Eguna da eta Umeen Eguna zein Mozorro Eguna izendatu dute. Beraz, herriko txikiak izango dira gaur protagonistak eta be-raientzako ekitaldi ugari izango dira. I. GARCIA

VILLABONA ▶ KULTURA

Euskararen jatorria hizpide gaur, Gurean

Ribero Meneses bere azken liburuari buruz ariko da

IMANOL GARCIA

Jorge Maria Ribero Meneses hizkuntzalari eta ikertzaileak *El verdadero origen de los Baskos: la primera Humanidad* liburuari buruz ariko da gaur, 19:00etan, Villabonako Gurea aretoan. Atzo egin zuen liburuaren aurkezpena Donostiako Koldo Mitxelenan, ondoan Alfonso Martínez de Lizardukoa historialaria eta Agiñalde elkarte Koldo Urrutia zituela. Bere azken liburuan, Ribero

Menesesek euskara munduko lehen hizkuntza dela eta euskaldunak Europako lehen biztanleak direla zehazten du. Atzoko aurkezpenean azaldu zuenez, ikerketa gutxi eginen da eta egiten dena aurrekoek esandakoa berresteko da. Villabonako gaur egingo den hitzaldian liburuari buruz ariko da eta aukera izango da ere liburu bera erosteko.

Bestalde, euskararen jatorriari buruz bi biltzar antolatu dituen Agiñalde elkarteak

gaurko hitzaldia baliatuko du Unescok euskara ondare inmaterial izendatzeko kanpaina abiarazteko. Hain zuzen, Ribero Meneses liburuaren egitasmo horretan dokumentu bezala erabiliko da. Agiñalde deia zabaltzen du jendeak parte har dezan proiektu horretan. «Euskal Herrirako zein euskararako onura ekarriko baitu». Proiektuari eta euskararen jatorriari buruzko informazioa www.euskararenjatorria.eu helbidean jaso daiteke.

Argazkilaritza:
publizitatea,
industrial, erreportaia

FOCUS ESTUDIO

www.focusestudio.com

Industrialdea 11 • Anoeta • 943 65 04 97

Prezio magikoak Citroën-en

VISIOSPACE-ak

Citroën GRAND C4 PICASSO / 7 eserlekukoa
Citroën C4 PICASSO / 5 eserlekukoa

Citroën, Espainiako¹ merkatuko liderra, Visiospace berriak jaurtitzen ditu eta prezio hauekin ospatzen du:

Citroën XSARA PICASSO 13.700€*
Citroën C5 17.600€*
Citroën C4 12.500€*
Citroën C2 8.400€*
Citroën C3 8.900€*

IROVI, S.A.
Citroën Konzesionario Ofiziala
Industrialdea z/g. • Tel.: 943 65 18 42
Anoeta / Tolosa

CITROËN

ABALTZISKETA ▶ NATURA

Hiru putrek eraso egin diote bizirik zegoen zekor bati

Atzealdetik heldu eta arrastaka eraman zuten; ondorioz, hil egingo da



Zekorra lasaigarriekin lozorroan; bere kasa hil baino lehen, gehiago ez sufritzeko hil egingo dute. N. URBIZU



Putreen erasoaren ondorioz, atzealde guztia txikituta dauka. HITZA

egin zioten, putreak han zeudela esateko. Animalia hartu eta albatariarenera eraman zuten, lasaigarriak eta halakoak emateko.

Abaltzisketako Udalaren lurretan dauden aziendak 5 abeltzainenak dira. Orain, hiltzorian dagoen zekorra baserri-eraman dute, Sarobera, hain zuzen. Abeltzainen kezkatuta daude, «honek soka luzea ekar dezake, putreak gosetuta dauden bitartean».

ziren. «10 minutu gehiago behar harko zituzten animalia momentuan hiltzeko», gogoratu zuen Anjel Olaizola mendi garbitzaile goizueta.

Haragitarako zekorrek hiru egun zituen atzo, baina bi egun zituela erasotu zioten saiek. Albatariarenera eraman zuten, baina seguruenik hil egingo da, «atzealdeko giharrak janda dauzkalako eta hesteak ere kaltetu dizkiotelako». Arkaitz Garmendia da zekorren jabea, eta 12:00ak aldera hots

Abeltzainen kezka

Abaltzisketako Udalaren lurretan dauden aziendak 5 abeltzainenak dira. Hauen kezka agerian geratu da, putreak horrela behin hasita, «kate luze bat hasi daitekeelako: putreak goseak daudenean kontuz». Berriz pasa daitekeela ikusten dute. Dagoeneko zekorrek ez dituzte belardietan uzten, eta baserrietara eramaten dituzte, gutxienez 20 bat egunez. Abeltzainen harrituta eta kezkatuta

ALEGIA ▶

Eskolako jaiak etzi izango da, herri guztiari zuzendutakoa



II. Bertso Paper Lehiaketako sariak banatuko dituzte. N. U.

N. URBIZU

Etzi Alegiko San Juan eskolako ikasturteari amaiera emango dio jai handi batekin: 16:00etan pilotalekuan dantzak, antzerkiak eta abarreak izango dira.

18:00etan merienda izango da; 19:00etan joko malabaren tailerra izango da eskolako jolastokian. Tartean, arratsaldean, tarte bat egingo diote II. Bertso Paper Lehiaketako 8 eta 11 urte bitartekoekin sariak banatzeko.

21:00etan, berriz, afari merienda izango da plazan. Ondoren, film bat jarriko dute. Herri guztia dago gonbidatuta egun honetan azaltzeko, ilusio handiarekin prestatu duten jai honetara.

NEREA URBIZU

Abaltzisketako larretan, Larraitzen zehazki, herenegun eguerdian hiru putrek bi egunetako zekor bati eraso egin zioten, jabeak esan bezala «seguruenik lozorroan zegoela». Inguruan zeuden mendi garbitzaile batzuk behikumea hiru putrek arrastaka eta mokoaz tiraka zeramatela ikusi zuten, zekorra zutik zegoela, eta haien sasiak garbitzeko makinekin hiru saiak izutzen ahalegindu




Herriko plaza, 2 - ANOETA
Tel.: 943 651 194



Ergoien, 5 • Tel.: 943 65 29 32
anoeta@ikastola.net

Festak
ondo pasa!



IBARRA ▶ ELKARTASUNA

Pakistanen inguruko jardunaldiak «oro har ondo joan dira»

«Ibartar asko joan ez den arren, lehen ekitaldian eta Oargin eginiko pakistaniar afarian jende ugari bildu zen»



Saad, Mohamed eta Mohamed Pakistanen inguruko kulturarteko jardunaldiak aurkezten. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Amaitu dira Pakistanen inguruan Jatorkinek antolatutako zuten kulturarteko jardunaldiak. Maiatzaren azken astean ekitaldi ugari burutu zituzten Ibarrrako Kultur Etxean eta Tolosako Oargi elkartearen. «Pakistanen bizi-baldintzak eta egunerokotasuna ezagutzeko izan da jardunaldien helburua», Jatorkineko kideen esanetan, «bertako errealitate gertutik ezagutzeko aldera, eta ez paisaje mailan bakarrik».

Balorazioa egiteko garaian, Jatorkineko kideek gerturatu diren jende kopurua aztertu nahi izan dute, «Ibartar asko ez da joan jardunaldietara egia esan. Tolosatik jende gehiago etorri da Ibarra, bertako he-

ritarrak baino. Orain dela 6 edo 8 hilabete berdina gertatu zen, egoera berean aurkitzen gara. Hala eta guztiz ere, jardunaldiak oro har ondo joan direla esan beharra daukagu. Lehen eguneko hitzaldia adibidez jende ugari elkartu zen. Hauteskunde garaian antolatutako izanak ere bere eragina izan du jendea erakartzeko garaian».

Azken egunean pakistaniar afaria egin zuten Tolosako Oargi elkartearen. «Bertan 40 lagun inguru elkartu ginen, horien artean, pakistaniar familia bat egon zen gurekin. Hauekin harremanetan euren seme gazteen bitartez jarri ginen. Guk dakigun euskara apurraz zuzendu ginen semeengana, eta hauek guk esana gurasoei esaten zien. Azkenean afarira ger-

turaztea lortu genuen eta oso harririk baina gustura azaldu ziren Pakistanen inguruko jardunaldien inguruan». Afaldu ostean, *Elurretako lehoia* dokumental ikusteko aukera izan zen Oargin, «bertan ez da mendia bakarrik azaltzen, pakistandarren bizi eta gai sozialak ere jorratzen dira. 3.000 metrotara bizi diren jendearenekin egunerokoa kontaktatzen da».

Jatorkineko kideek aurrera begira berriz egunerokotasunean lanean jarraituko dutela jakinarazi dute. Kolektibo ezberdinekin kontaktuan jarri eta elkartasuna zabaltzeko asmoz, ezagutzan oinarritutako elkartasuna, nahiz eta jakin hiri handietan aurkitzen diren erraztasunak ez direla eskualdean aurkitzen.

IBARRA ▶

Hilaren 15ean IKEren urteroko Batzar Orokorra

Ibarrako kirol elkarteak (IKE) urteroko Batzar Orokorra ospatu du datorren ostiralean, hilaren 15ean, gaueko 21:00etan. Deialdia egiten zaie bertako bazkide guztiei, bertara azal daitezela eskatuaz. Aldi berean, elkartearen urteroko festan egingo den bazkarirako zerrenda irekiko da egun horretan. Festa uztailaren 7an, larunbatean izango da. Ahalik eta bazkide gehienen parte artzea eskatu nahi izan du zuzendaritzak.

IBARRA ▶

Mendi irteera igandean Urto parkera

Bosgarren urtez jarraian, Haitzetan Raju mendi taldeak Ibarra ingurutik eginiko mendi irteera eta zikro jatea antolatu du hilaren 10erako, igandeko. Irteera 09:00 etan izango da plazan, eta 3 ordu ondoren Berastegiko Urto parkera iritsiko dira. Bertan zikroa jango dute eta 18:00etan autoz edo autobusez itzuliko dira. Izena emateko lekuak Zubiaurre eta Atari taberna izango dira. Informazio gehiagorako 652 715 800 zenbakia jarri dute.



Txalaparta ez zen falta iaz. HITZA

VILLABONA ▶

Gasteizera autobusa dohain igandean

Villabonako Transportes Larkuntza futbol taldeak Euskal Ligarako igoera faseko partidak jokatu du igandean, hilaren 10an, Gasteizen. Bidarako autobusa dohain jarri dute taldekideek. Irteera ordua 09:15erako jarri dute Villabonako kiroldegiaurrean. Gaur amaituko da apuntatzeko epea, Erreka, Rainbow, Apatx eta Upaien.

IBILALDIA ▶

Ikaztegiatik eta Alegiatik San Felizisimora

Hilaren 17an Deustuko (Bizkaia) San Felizisimo ermitara joateko ibilaldia antolatu dute. Horregatik Alegiatik eta Ikaztegiatik joan nahi duen guztiak izena eman dezake 943 653012 telefono zenbakian. Bidaia honetan, amezketarrak elkartuko dira autobusean. San Felizisimoko meza 12:30ean izango da Deuston.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ KULTUR ASTEA

'Apaizac Obeto' emanaldia Peritzan, Jon Maiaren eskutik

2006an baleontzi batean egindako bidaiari abiapuntuzat hartuz, euskal itsaso ondarea izanen du hizpide Maiak



2006. urtean Kanadan 7 lagunek egindako espedizioa. HITZA

N. GARZIA

Gaur 20:00etan, Jon Maiaren bidaiaren ikus-entzunezko emanaldi-hitzaldia izanen da Peritzan. *Apaizac obeto* dela-koa.

Jon Maiak *Apaizac obeton* zer bildu duen azaldu du. «Espedizioaren kontakizunarekin kontatzen dugu zein izan zen Ipar Atlantikoan XVI eta XVII. mendeetako euskaldunon bale arrantzaren historia, eta zer

garrantzia izan zuen horrek Euskal Herrian ere. Espedizioan zehar hartutako irudiak ematen ditugu, eta espedizioaren hariarekin historia esplikatzen dugu».

Jendearen erantzunari dago-

kionez, «ustekabekoa» izan dela adierazi du. «Ustekabekoa izan da zenbaterainoko eskaera izan duen emanaldiak eta zenbat jende etorri den. Nik kalkulatu dut 2.000 lagun inguru izan direla herriz herri egindako emanaldietan». Emanaldi hauen helburua zein den zehaztu du Maiak. «Inon ez zegoen gai bat gizarteratzea lortu dugu eta hori zen gure helburua: espedizio ikusgarri baten bidez jendearen arreta erakartzea, gure itsaso ondarearekiko eta Euskal Herriaren historiarekiko. Jendea harrituta gelditzen da, ideia batekin edo lau zertzelada jakinik etortzen delako emanaldietara eta harrituta ateratzen da zer historia ederra eta zer historia garrantzitsua dagoen bale-arrantzaren atzean».

Espedizioa

2006. urteko ekainean 1ean Quebec-etik abiatu eta 46 egunetako bidaiari zuten 7 lagunek (6 Euskal Herrikoak, bat Mik'mak indioa). «Hau Kanadako Gobernuako erakunde batekin elkarlanean egindako espedizioa izan da. Beraiek orain dela 30 urte euskal baleontzi bat aurkitu zuten, eta berekin batera txalupa bat, beste hainbat aurkikuntzen artean. Haiek egindako ikerketek eskertu Pasaiaiko Albalola elkarrekin han aurkitutako bale txaluparen erreplika egin zuten, eta erreplika horrekin joan gara Kanadan euskal bale arrantzaleek utzitako aztarnak eta ibilitalo lekuak bisitatuzera, beraiek bezala nabigatuz, janari bera janz, eta arropa bera erabiliaz».

LEITZA ▶ BERTSOLARITZA

Ane Intxausti hirugarren, Larraitzarko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan

Nafarroako hainbat lekutako 24 neska-mutil elkartu ziren larunbatean Larraitzarren

ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean Larraitzarren (Ultzama) ospatutako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan Ane Intxausti leitzarrek hirugarren postua eskuratu zuen.

Orotara hogeitalau neska-mutil izan ziren hamalau urtez azpiko kategorian aritu zirenak. Parte-hartzaileak Nafarroako hainbat lekutatik joan zi-

ren: Iruñea, Antsoain, Barañain, Bortzirriak, Baztan, Goizueta eta Leitza. Hamabi lagunek kantatu zuten lehenik, eta beste hamabik ondoren.

Lehenengo bi saio horiek bukatuta, sei bertsolari bereizi zituzten epaileek (Erika Lagoma eta Jon Barberena) txapela beren artean joka zezaten: Josu Sanjurjo, Irati Majuelo, Haizea Beruete, Iñaki Ansa, Irati Arrieta eta Ane Intxausti.

Josu Sanjurjo lesakarra aisa samar gailendu zitzaizen beste kideei, eta, beraz, hark kantatu du ekainaren 23an Altsasuan ospatuko den Euskal Herriko Txapelketan. Herrialde bakoitzetik bi kide joaten dira txapelketa horretara, eta Irati Majuelo iruindarrak lortu zuen bigarren txartela.

Ane Intxaustik aski bertso ederrak kantatu zituen larunbatean, bai lau oinak emanda egin zuen ariketan, bai Iñaki Ansarekin binaka egin zuen saioan ere. Goizuetarrak tartean bazirela ikusita, haiei adarra jotzea pentsatu zuen, Buruz Buruko Txapelketaren finala hizpide hartuta. Aimar Olaizola eta Abel Barriolaren arteko norgehiagoka, alegia. Hona hemen lau oinekin (konpleto, hobeto, egiteko, hasteko) bota zuen bigarren bertsoa: *Aurten*



Ane Intxausti. HITZA

Barriola guk/ daukagu konpleto/ lehengo urtean beño/ askoz' e hobeto/ seittun Aima- rren kontra/ prest dago haste- ko/ leitzarrok errez dugu/ apustua egiteko.

LEITZA ▶

Jon Rekondok Urrezko Aizkora irabazi du bere mailan

N. GARZIA

Igandean Azeptian ospatutako txapelketan Jon Rekondok bere kategorian Urrezko Aizkora irabazi du. Rekondoz gain, Nazabal eta Atutxa izan ziren irabazleak, azken hau 18 urtetik beherakoa.

Rekondo 23 urtetik beherako kategorian Ugaitz Mugerzaren aurka lehiatu zen. Leitzarri lau probetan Mugerzari gailendu zitzaion, eta enborra bertikalki moztu zuen proban egindako lana asko mirestu zuten, 27 segundo atera baizizkion aurkariari. «Azkenurreko proban abantaila handia atera nion», dio leitzarrek.

Txapel honekin Rekondok beste garaipen bat lortu du, lehengo urtean Urrezko Aizkora bigarren gelditu baitzen.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Herialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baiarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebexa:

672411

▶ **Ikaztegjeta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzio klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarri autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Idoia Sanchezen ipuin kontaketa Ibarako liburutegian 17:00etan eta Belauntzako Kultur Etxean 18:15ean.

Leitza. Jon Maiaren 'Apaizac Obeto' espedizioaren ikus-entzunezko emanaldia Peritza tabernan, 20:00etan.

Lizartza. Udalak Uztaileko ludoteka antolatuta du, 3-12 urte bitarteko umeentzat. Izena emateko epea ekainaren 22 Udaletxean. Begiraleak ere behar dira.

Tolosa. Paulo Iztueta eta Lourdes Otaegik prestatutako

Lizardi. *Gutunak* liburuaren aurkezpena udal batzar aretoan 20:00etan. Lizardi Kultur Elkarteak antolatuta.

Tolosa. Sanjoanetako zezenketa ekainaren 17an Jesulin, El Cordobes eta Rivera Ordoñez toreatzaileekin. Sarrerak salgai Asteasuara, Fronton, Orue, Cantabrico eta 66 tabernetan eta zezen-plazan.

Tolosa. La Jarak irteera antolatuta du Toledora ekainaren 16 eta 17rako. Izen-ematea (675 70 76 19).

Villabona. Bertso-afaria antolatuta du Eragin-ek (Villabonako presoen aldeko topaguneak) Villabonako Zentroan ekainaren 9an 20:30ean Amets Arzallus eta Andoni Egañarekin. Gai jartzaile: Amaia Agirre. Sarrerak salgai Erreka, Iratzar eta Xikerren.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEIZALDEKO HITZAREN errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketak, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (erreplikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Adiskidetasuna sustatuz

TOLOSA ▶ Eskolapioek Euskal Herrian dituzten ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleek pasa den larunbatean bildu ziren Adiskidetasu Jolasetan



Kiroldegia herri ezberdinetako Eskolapioetako ikasleek bete zuten, kirola egiteko. HITZA

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean, ekainaren 2an, Tolosako Hirukide ikastetxeak Eskolapioetan dituen kirol instalazioetan ospatu zuen urterotero egiten duten Adiskidetasu Jolasak.

Aurtengoan 200 neska-mutil inguru aritu dira egun osoan kirol hauetan: futbola, eskubaloia, saskibaloia, softball eta boleibolea. Helburua, haatik, elkarrekin adiskidetasun sustatzea da, ez irabaztea.

Hain zuzen ere, 25 urte bete dituzte Eskolapioetako Barrutiko ikastetxe guztietako —Bilbokoa, Gasteizkoa, Tafallakoa, bi Iruñekoak eta Tolosakoa— kirolean ibiltzen diren Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak egun batean elkartzen direla euren ikastetxeetarako batean. Topaketa horietan kirola dela medio, «egun pozgarri bat» igarotzen dutela azpimarratu dute arduradunek.



Pilota erraldoi batekin ere aritu ziren jolasean. HITZA



Jolaserako tartea ere hartu zuten ikasleek. HITZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aitor Gurrutxaga (Tolosa).
 Gaur 8 urte. Zorionak aita, ama eta Ikerren partetik.



URTE ASKOAN
Unax Iglesias Jometon (Ibarra). Gaur 3 urte. Muxuak familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...